



<i>prozedura arrunt batean kostuak ordaintzera kondenatua izanez gero.</i>	<i>contencioso administrativo en un procedimiento ordinario.</i>
<i>Jakin nahi dut eta eskala-tipoa eskatzen duen edo gomendagarri dena, baina ez didate erantzuten galdera horri».</i>	<i>Quiero saber si pide la escala tipo o lo aconsejable, pero no me responden a esa pregunta”</i>
<b>BIGARRENA.</b> Bere idazkiarekin batera, erreklamatzailerak informazio publikoaren hasierako eskaera aurkeztu zuen, bai eta Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako erantzuna ere. Dokumentazio hori nahiko dela uste da erreklamazioa ebatzi ahal izateko, eta ez dago zertan eskatu txosten osagarririk informazioa emateaz arduratzen den organoari.	<b>SEGUNDO.</b> A su escrito, el reclamante acompaña tanto la solicitud inicial de información pública que formuló como la respuesta que recibió de la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública; documentación que se estima bastante para poder resolver la reclamación sin necesidad de solicitar informe complementario al órgano encargado de facilitar la información requerida.
<b>HIRUGARRENA.</b> Erreklamaziogileak uztailaren 28an egindako informazio publikoaren eskaerak honako hau zioen:	<b>TERCERO.</b> La solicitud de información pública formulada por el reclamante el 28 de julio era del siguiente tenor literal:
<i>«Administrazioarekiko auzi-errekurtso batean (1200 €), errekurtsogilea kostuak ordaintzera kondenatzen duen prozedura arrunt batean. Legelarien Euskal Kontseiluaren Erabakiak dio eskala-tipoa 300 € dela, eta 935 € baino gutxiago ez izatea gomendatzen dela.</i>	<i>“En un recurso contencioso administrativo por 1200 € en un procedimiento ordinario en el que el recurrente es condenado en costas, el Acuerdo del Consejo Vasco de la Abogacía dice que la escala tipo son 300 € y que es aconsejable una cantidad no inferior a 935 €.</i>
<i>Bi zenbateko horietatik, zein eskatzen du Bizkaiko Foru Aldundiak?».</i>	<i>¿Cuál de las dos cifras pide la diputación (sic) Foral de Bizkaia?»</i>
<b>LAUGARRENA.</b> Informazio-eskaera horri honela erantzun zion Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak, 2022ko abuztuaren 3an:	<b>CUARTO.</b> A esta solicitud de información, con fecha 3 de agosto de 2022, la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública remitió respuesta en los siguientes términos:
<i>«Eskatzen duzun informazioari dagokionez, honako hau jakinarazten dizugu:</i>	<i>“En relación con la información que solicita, le informamos lo siguiente:</i>
<i>Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioaren Legearen 139. artikulua honako hau ezartzen du:</i>	<i>El artículo 139 de la Ley de la Jurisdicción Contencioso-administrativa establece:</i>
<i>1. Lehen auzialdian edo auzialdi bakarrean, jurisdikzio-organismoak, epaia ematean edo beraren aurrean jarriko errekurtso edo intzidenteak auto bidez ebaztean, uzi guztiak ezetsi zaizkion alderdiari ezarriko dizkio</i>	<i>1. En primera o única instancia, el órgano jurisdiccional, al dictar sentencia o al resolver por auto los recursos o incidentes que ante el mismo se promovieren, impondrá las costas a la parte que haya</i>

<i>kostuak, non eta ez duen hautematen, eta hala arrazoitzen, auziak egitatezko nahiz zuzenbidezko zalantza handiak zituela.</i>	<i>visto rechazadas todas sus pretensiones, salvo que aprecie y así lo razone, que el caso presentaba serias dudas de hecho o de derecho.</i>
<i>Uziak parte batean baiesten edo ezesten diren kasuetan, alderdi bakoitzak berak eragindako kostuak ordainduko ditu, eta komunak, berriz, erdibana, non eta jurisdikzio-organoak, behar bezala arrazoiturik, ez dizkion haietako bati ezartzen, fede gaiztoz edo ausarkeriaz akzioari eutsi edo errekurtsua jarri izanagatik.</i>	<i>En los supuestos de estimación o desestimación parcial de las pretensiones, cada parte abonará las costas causadas a su instancia y las comunes por mitad, salvo que el órgano jurisdiccional, razonándolo debidamente, las imponga a una de ellas por haber sostenido su acción o interpuesto el recurso con mala fe o temeridad.</i>
<i>2. Errekurtsuetan, errekurtsua guztiz ezesten bada, errekurtsogileari ezarriko zaizkio kostuak, non eta jurisdikzio-organoak ez duen hautematen, eta egoki arrazoitzen, hari ez ezartzea justifikatzen duen inguruabarren bat.</i>	<i>2. En los recursos se impondrán las costas al recurrente si se desestima totalmente el recurso, salvo que el órgano jurisdiccional, razonándolo debidamente, aprecie la concurrencia de circunstancias que justifiquen su no imposición.</i>
<i>3. Kasazio-errekurtsuan, 93.4 artikuluan aurreikusitakoarekin bat ezarriko dira kostuak.</i>	<i>3. En el recurso de casación se impondrán las costas de conformidad con lo previsto en el artículo 93.4.</i>
<i>4. Kostu-ezarpena izan daitezke guztizkoa, parte baten gainekoa edo gehieneko kopuru baterainokoa.</i>	<i>4. La imposición de las costas podrá ser a la totalidad, a una parte de éstas o hasta una cifra máxima.</i>
<i>5. Partikularrei ezarritako kostuak ordainarazteko, premiamendu bidea erabiliko du hartzekodun den administrazioak, borondatez ordaindu ezean.</i>	<i>5. Para la exacción de las costas impuestas a particulares, la Administración acreedora utilizará el procedimiento de apremio, en defecto de pago voluntario.</i>
<i>6. Kostuak ez zaizkio Fiskaltzari ezarriko ezein kasutan.</i>	<i>6. En ningún caso se impondrán las costas al Ministerio Fiscal.</i>
<i>7. Prozesuan sorturiko kostuak Prozedura Zibilaren Legean xedaturiko moduan arautuko eta tasatuko dira.</i>	<i>7. Las costas causadas en los autos serán reguladas y tasadas según lo dispuesto en la Ley de Enjuiciamiento Civil.</i>
<i>Ondorioz, errekurtsua edo intzidentea ebazten duen ebazpenean zehazten du lehenik organo judizialak alderdiek ordaindu beharreko kostuen zenbatekoa.</i>	<i>En consecuencia, el importe de las costas que deben satisfacer las partes se determina en primer término por el órgano judicial en la resolución que resuelva el recurso o el incidente.</i>
<i>Baldin eta organo judizialak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrako alderdiari ezartzen badizkio kostuak, ebazpenean inon ezarri gabe</i>	<i>En el supuesto de que el órgano judicial imponga las costas a la parte contraria a la Diputación Foral de Bizkaia, sin establecer</i>

<p>zein den haiek kalkulatzeko zenbatekoa edo irizpidea, kontuan hartu behar da, auzitegiek behin eta berriz ezartzen duten bezala eta Legelarien Euskal Kontseiluak onartutako Baremo Orientatzaileen Seigarren Xedapen Orokorrak adierazten duen bezala, letraduari bere esku-hartze profesionalagatik dagozkion ordainsarien oinarria egindako lan profesionala dela, eta, beraz, honako irizpide hauek hartuko dira hura baloratzeko: planteatutako auziaren zenbatekoa edo oinarri ekonomikoa, letraduaren esku-hartze profesionalak bezeroarentzat duen onura, eztabaidatutako edo aztertzeo aurkeztutako gaien konplexutasuna, dedikazioa eta erabilitako denbora, eta eskatutako espezializazio-maila.</p>	<p>en su resolución el importe o el criterio con que estas deben ser calculadas, hay que tener en cuenta, como establecen de forma reiterada los tribunales y señala la Disposición General Sexta de los Baremos orientadores aprobados por el Consejo Vasco de la Abogacía, que los honorarios que corresponden al letrado/a por su intervención profesional tienen como base el trabajo profesional realizado, y tomaran como criterios para su valoración la cuantía o base económica de la cuestión planteada, la utilidad que la intervención profesional del letrado tenga para el cliente, la complejidad de las cuestiones debatidas o sometidas a su consideración, la dedicación y el tiempo empleado, así como el grado de especialización requerido.</p>
<p>Lehenago jakinarazi zitzaizunez, «Bizkaiko Foru Aldundiaren praktikari dagokionez, prozesuko kostuak kobratzeko edozein abokatuk bere ordainsariak minutatuko balitu bezala, kontuan hartu behar da Legelarien Euskal Kontseiluaren 2006-01-01eko Erabakia (Interneten eskura daiteke), zeinak ordainsari profesionalak aplikatzeko baremo orientagarriak ezartzen baititu, eta, zehazki, erabaki horren 479. eta 480. apartatueta prozedura motaren arabera xedatutakoari jarraikiz».</p>	<p>Tal y como se le comunico anteriormente "la práctica de la Diputación Foral de Bizkaia al igual que si minutase cualquier letrado o letrada sus honorarios a los efectos del cobro de costas procesales se ha de tener en cuenta el Acuerdo del Consejo Vasco de la Abogacía, por el que se establecen los baremos orientadores, de 1-1- 2006, para aplicación de honorarios profesionales, accesible en internet y concretamente siguiendo lo dispuesto en los apartados 479 y 480 de dicho Acuerdo según el tipo de procedimiento."</p>
<p>Goian azaldutakotik ondorioztatzen denez, gaur egun eta prozedura judicial jakin batean garatutako jarduketak aztertu gabe, ezin da zehaztu zenbateko minuta egingo lukeen Aldundiko Zerbitzu Juridikoak beraren kontrako alderdiari kostuak ezarri gero, nahiz eta kostuok, oro har, baremoetan ezarritakoari lotuko litzaizkiokeen.</p>	<p>De lo expuesto se deriva que no es posible en el momento actual y sin analizar las actuaciones desarrolladas en un procedimiento judicial concreto, determinar cuál es el importe que se minutaría por el Servicio Jurídico de la Diputación en caso de imposición de costas a la parte contraria, si bien las mismas, como regla general, se atenderían a lo que establecen los Baremos.</p>
<p>Nolanahi ere, eta zuk adierazi bezala, Legelarien Euskal Kontseiluaren Baremo Orientatzaileen 479. arauak ezartzen du zenbateko zehatza duten prozedura arruntetan eskalaren % 100 aplikatu behar dela, eta 935 eurotik beherakoa ez den zenbatekoa gomendatzen da. Eskala hori 1.200 euroko zenbatekoari aplikatuz gero, emaitza 300 euro da.</p>	<p>En cualquier caso, y como usted señala, la norma 479 de los Baremos Orientadores del Consejo Vasco de la Abogacía, establece que en los procedimientos ordinarios que tuvieran cuantía determinada debe aplicarse el 100% de la escala, siendo aconsejable una cantidad no inferior a 935 euros. La aplicación de la escala a una cuantía de 1.200 euros da como resultado 300 euros.</p>

Kontuan hartu behar da Baremoen Hamazazpigarren Xedapen Orokorrek honako hau ezartzen duela: "Ordainsarien baremo hauek errealitate ekonomikora beti egokituta egon daitezten, adierazitako kontzeptu finkoei dagokienez (eta ez eskaletan ezarritako ehunekoei dagokienez), baremook Euskal Autonomia Erkidegoan Kontsumoko Prezioen Indizeak zehaztutako aldakuntza izango dute urtero. Lehenengo eguneratzea 2007ko urtarrilaren 1ean egingo da eta berdin egingo da hurrengo urteetan».	Debe tenerse en cuenta que la Disposición General Decimoséptima de los Baremos establece que "Al objeto de que los presentes baremos de Honorarios se encuentren continuamente adaptados a la realidad económica de cada momento, los mismos, en cuanto a los conceptos fijos que se señalan (no los sujetos al porcentaje establecido en las escalas), experimentaran anualmente la variación que venga determinada por el índice de Precios al Consumo en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco. La primera variación se realizará el 1 de enero de 2007 y, así, sucesivamente".
Adeitasunez,»	Atentamente,»
<b>ZUZENBIDEKOOINARRIAK</b>	<b>FUNDAMENTOS DE DERECHO</b>
<b>LEHENENGOA.</b> - Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu da (aurrerantzean, 1/2016 Foru Araua, Gardentasunari buruzko Foru Araua edo Foru Araua.	<b>PRIMERO.</b> -La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia (en adelante, "Norma Foral 1/2016", "Norma Foral de Transparencia" o "Norma Foral".
29.1.1 artikulua araber, 2. artikuluaekin lotuta (biak foru arau honetakoak), Bizkaiko Foru Aldundiak, foru erakunde autonomoek, foru erakunde publiko enpresarialek, foru fundazioek, foru partzuergoek eta aurretik aipaturikoen desberdinak diren zuzenbide publikoko bestelako foru erakundeek informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzen badu Erreklamazio Batzordea izango da erreklamazioak ebazteko eskumena izango duena.	De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.
Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen	Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la

<p>Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren ("128/2016 Foru Dekretua") bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: "a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.</p>	<p>Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio ("<i>Decreto Foral 128/2016</i>"), establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "<i>a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.</i>"</p>
<p>Aztertzen ari garen kasuan, erreklamazioa jarri da, interesdunak uste duelako Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak emandako erantzunarekin ez zaiola erantzuten orain erreklamaziogile denak aurkeztutako informazio publikoaren eskaerari.</p>	<p>En el caso que nos ocupa, nos encontramos ante una reclamación interpuesta por entender el interesado que, con la contestación que le ha dado la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública, no se responde a la solicitud de información pública presentada por el ahora reclamante.</p>
<p><b>BIGARRENA.-</b> 1/2016 Foru Arauaren 18.1 artikuluan informazio publikoa eskuratzeko eskubidea aitortzen die pertsona fisiko eta juridikoei. Foru arau bereko 17.2 artikulua arabera, informazio publiko gisa ulertzen da: "( .. ) foru arau honen aplikazio eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok".</p>	<p><b>SEGUNDO.-</b> La Norma Foral 1/2016 reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "<i>( .. ) cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones</i>".</p>
<p>Beraz, arauak informaziora sartzeko eskaera baten xedea jadanik existitzen denaren arabera definitzen du, eskaera jasotzen duen organoaren esku baitago; organo horrek egin duelako edo ezarriak dituen eginkizun eta eskumenen baitan eskuratu duelako.</p>	<p>Por tanto, la norma define el objeto de una solicitud de acceso a la información con relación a algo que existe, por cuanto obra en poder del órgano que recibe la solicitud, bien porque el mismo la ha elaborado o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.</p>
<p><b>HIRUGARRENA.</b> Kontuan harturik zer adierazi den aurreko zuzenbideko oinarrian, bai eta ebazpen honen aurrekarietan adierazitakoa ere, honako hau ondoriozta daiteke: erreklamazioa aurkezteko arrazoia da gorago transkribatu den idazkiak -non</p>	<p><b>TERCERO.</b> Teniendo en cuenta lo señalado en el fundamento de derecho anterior, así como en los antecedentes de la presente resolución, cabe concluir que la reclamación se interpone por entender que el escrito que se ha transcrito más arriba -</p>

<p>azaltzen den zer irizpide bete behar dituen kostuak kalkulatzeko Bizkaiko Foru Aldundiak kostuok beraren kontrako alderdiari ezartzen zaizkion prozeduretan- ez diola erantzuten erreklamatzailaren galderari, hau da, ea, kostuak kalkulatzeko, Legelarien Euskal Kontseiluak onetsitako ordainsari profesionalak aplikatzeko baremo orientatzaileen eskala-tipoa aplikatzen den edo gomendatzekoa dena.</p>	<p>relatando los criterios a los que debe someterse la Diputación Foral de Bizkaia para calcular las costas en los procedimientos en los que resulta favorecida por la imposición de aquellas a la parte contraria- no responde a la concreta pregunta del reclamante sobre si, para el cálculo de las costas, se aplica la escala tipo o la aconsejable de los baremos orientadores para aplicación de honorarios profesionales aprobados por el Consejo Vasco de la Abogacía.</p>
<p>Eta, lehenik eta behin, kontu egin behar zaio De la Hera jaunak, modu hipotetiko hutsean baina aldi berean zehaztasunez, planteaturiko informazio publikoaren eskaerari, eta, hala, zehaztu behar da ea, gorago transkribatu den 1/2016 Foru Arauaren 17.2 artikulua xedaturikoaren arabera, baden informazio publikoa, eta aukera ematen duen hark egindako galderari erantzun zehatz bat emateko.</p>	<p>Y, la primera cuestión a la que debe atenderse es la de determinar si la solicitud de información pública presentada por el Sr. de la Hera, en los términos puramente hipotéticos, pero al mismo tiempo taxativos, en los que ha sido planteada, reúne la condición de información pública al amparo de lo previsto en el artículo 17.2 de la Norma Foral 1/2016, previamente transcrito, y permite una respuesta concreta a la pregunta formulada.</p>
<p>Lehenik, kostuak zehaztea kostuok ezartzen dituen organo jurisdikzionalari dagokiolako; organo horrek, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 139. artikulua arabera, diskrezionalitate nahikoa du hura zehazteko: erabaki dezake kosturik ez ezartzea, auziak egitatezko nahiz zuzenbidezko zalantza handiak zituela uste badu (139.1), eta erabaki dezake kostu- ezarpena guztizkoa izatea, parte baten murriztea edo gehieneko kopuru bat finkatzea (139.4)...</p>	<p>En primer lugar, porque la determinación de las costas compete al órgano jurisdiccional que las impone; órgano que, al amparo del art. 139 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa, goza de bastante discrecionalidad para su determinación: pudiendo acordar no imponerlas por estimar que el caso ofrecía serias dudas de hecho o de derecho (139.1); imponiéndolas en su totalidad, reduciéndolas a una parte, o fijando una cifra máxima (139.4)...</p>
<p>Beste alde batetik, abokatuari bere esku- hartze profesionalagatik dagozkion zerbitzu- sariak, izatez, egindako lan profesionala izan behar dutelako oinarri. Hori dela eta, baloraziorako irizpidetzat hartzen dituzte planteatutako arazoaren zenbatekoa edo oinarri ekonomikoa, baina baita abokatuaren esku- hartze profesionalak kasua ebazten izan duen onura, eztabaidatutako edo haren esku jarritako gaien konplexutasuna, haren dedikazioa eta erabili duen denbora, eta eskatzen zaion espezializazio-maila ere. Horrek esan nahi du kasu bakoitzean minuta</p>	<p>Por otra parte, porque los honorarios que corresponden al letrado/a por su intervención profesional deben tener como base, por su propia naturaleza, el trabajo profesional realizado. Por lo que toman como criterios para su valoración la cuantía o base económica de la cuestión planteada, pero también la utilidad que la intervención profesional del letrado ha tenido en la resolución del caso, la complejidad de las cuestiones debatidas o sometidas a su consideración, la dedicación y el tiempo empleado, así como el grado de</p>

<p>bidez helarazi beharreko ordainsariak ezin direla aldez aurretik zehaztu arau matematiko huts bat balitz bezala; aitzitik, dauden irizpide orientatzaileen arabera kalkulatu behar dira, baina kasuan kasuko prozeduraren inguruabar zehatzak kontuan hartuta.</p>	<p>especialización requerido. Quiere esto decir que los honorarios que proceda minutar en cada caso no pueden determinarse de manera apriorística como si de una regla puramente matemática se tratara; sino que deben calcularse, atendiendo a los criterios orientadores existentes, pero con atención a las circunstancias concretas del procedimiento en cuestión.</p>
<p>Ez da ahaztu behar, gainera, erreklamazioak aipatzen dituen irizpide orientatzaileek badituztela mugak ere.</p>	<p>Sin olvidar que los criterios orientadores a los que hace referencia el reclamante tienen también sus limitaciones.</p>
<p>Indarrean den Abokatutzaren Estatutu Orokorra (AEO) 2021eko martxoaren 2ko 135/2021 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen, eta, bere 25. artikuluan adierazten duenez, abokatuak eskubidea du emandako zerbitzuengatik konpentsazio ekonomiko egokia jasotzeko, bai eta sortu zaizkion gastuak itzul dakizkion ere.</p>	<p>El vigente Estatuto General de la Abogacía (EGA) aprobado por Real Decreto 135/2021, de 2 de marzo, en su artículo 25 declara que el abogado tiene derecho a una compensación económica adecuada por los servicios prestados, así como al reintegro de los gastos que se le hayan causado.</p>
<p>Dekretu horrek, era berean, xedatzen du abokatuen elkargoei zerbitzu-sariei buruzko irizpide orientagarriak prestatu ahal izango dituztela, baina soil-soilik kostuak tasatzeko eta kontuen zina egiteko, halaber eman ahalko dutela ordainsari profesionali buruzko informazioa eta irizpena, eta are peritu-txostenak egin ere.</p>	<p>También dispone que los Colegios de la Abogacía podrán elaborar criterios orientativos de honorarios a los exclusivos efectos de la tasación de costas y de la jura de cuentas, así como informar y dictaminar sobre honorarios profesionales, pudiendo incluso emitir informes periciales.</p>
<p>Eta Prozedura Zibilaren Legearen 242.4 artikulua berresten du estatutu profesionalaren arau erregulatzaileak bete beharko direla, halakorik izanez gero, abokatuen zerbitzu-sariak zehazteko.</p>	<p>Y el artículo 242.4 de la Ley de Enjuiciamiento Civil, consagra la sujeción, caso de haberlas, a las normas reguladoras de su estatuto profesional para la determinación de los honorarios de los abogados.</p>
<p>Hala ere, gaiari buruz oraintsu emaniko jurisprudentzia kontraesankorra da; izan ere, irizpide orientatzaileak egoteko aukera berresten duen arren, ez dirudi babes ematen dionik irizpideon publizitatea egiteari; eta Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak zehapenak ezarri izan dizkie abokatuen elkargoei halako baremo edo irizpideen publizitatea prezioen gomendio kolektibotzat jo duenean, lehia askea mugatzen duelako.</p>	<p>No obstante, la jurisprudencia reciente sobre la materia es algo contradictoria porque, aunque confirma la posibilidad de que existan criterios orientadores, no parece que da cobijo a que estos se publiquen; y la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia ha venido sancionando a los Colegios de Abogados cuando ha entendido que la publicidad de dichos baremos o criterios es una recomendación colectiva de precios proscrita por limitar la libre competencia.</p>



Azaldutako guztiagatik, De la Hera jaunaren informazio-eskaera, zehazki hark planteatzen duen moduan, ezin da hartu informazio publikoko eskaeratzat, eskatzen duena ez baita ezein eduki ez dokumentu 1/2016 Foru Arauaren 17.2 artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen dituena.	Por todo lo expuesto, la solicitud de información del Sr. de la Hera, en los estrictos términos en los que la plantea, no puede entenderse como solicitud de información pública, puesto que lo que demanda no es ningún contenido ni documento que reúna las condiciones exigidas por el art. 17.2 de la Norma Foral 1/2016.
<b>LAUGARRENA.</b> – Jar dezagun orain arreta Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak informazio publikoaren eskaerari eman dion erantzunean, eta, beraz, azter dezagun ea noraino lortzen duen erantzutea eskatutakoari.	<b>CUARTO.</b> – Centrándonos ahora en la respuesta que la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública ha dado a la solicitud de información pública formulada, pasamos a analizar hasta qué punto dicha respuesta acierta a contestar a lo requerido.
Ikusten da ez zaiola erantzun ordainsarien zenbatekoari buruzko galdera zehatzari, hau da, zenbateko minuta egingo litzatekeen, kasu hipotetiko batean, zenbatekoa 1.200 € balitz.	Se observa que no se da respuesta a la pregunta concreta del importe de honorarios que se minutaría en un hipotético asunto en el que la cuantía ascendiera a 1200 €.
Hala ere, gorago adierazi den bezala, ezin da esan eskatzen den informazioa eskaera jaso duen organoaren esku dagoen ezein eduki edo dokumentutan dagoenik; beraz, hala ulertuz gero, organo horrek informazio-eskaera ez onartzea erabaki zezakeen, Bizkaiko Gardentasunari buruzko 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 17.2 artikulua babestean.	No obstante, como ya se ha señalado, la información que se demanda no puede entenderse incluida en ningún contenido ni documento que obre en poder del órgano que ha recibido la solicitud, por lo que, interpretada en esos términos, dicho órgano bien podría haber inadmitido la solicitud de información amparándose en artículo 17.2 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.
Kontua da, beste alde batetik, Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak saihestu egiten duela eskaera ez onartzea, eta modu orokorrago batean bideratzen duela kontsulta. Erantzuten du, dena den, eta azaltzen du zer irizpide jarraitu behar dituen Bizkaiko Foru Aldundiak –beste edozein eragile juridikok bezala– administrazioarekiko auzien jurisdikzioko prozeduretan minutak zehazteko, eta egindako galdera zehatzari erantzutea ezinezkoa dela justifikatzen du, baina erantzun bete-betekoa ematen dio kontsultari –zentzu orokorragoan ulertuta–, argi eta beharrezko den moduan.	Resulta, por otra parte, que la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública evita la inadmisión reorientando la consulta a unos términos más generales, y sí da respuesta y explica los criterios a los que debe ajustarse la Diputación Foral de Bizkaia -como cualquier otro operador jurídico- para la determinación de las minutas en los procedimientos en la jurisdicción contencioso-administrativa; justificando la imposibilidad de responder a la pregunta concreta formulada, pero dando cumplida respuesta a la consulta -entendida en un sentido más general- de manera clara y suficiente.

Aurreko guztia dela eta, bidezkoa da erreklamazioa ezatea, zeren eta, informazio publikoa eskatu zaion organoak, ikusirik egin zitzaion kontsulta ez zettorrela bat zehazki berak duen ezein eduki edo dokumenturekin eta ezin zuela halakorik herritarrekin partekatu, berrinterpretatu egin baitu eskaera eta eskatzailearen esku jarri baitu Bizkaiko Foru Aldundiak administrazioarekiko auzien jurisdikzioko prozeduretan sortutako kostuak zehazteko erabiltzen dituen irizpideei buruzko informazioa.	Por todo cuanto antecede, procede desestimar la reclamación, porque el órgano al que se ha solicitado la información pública, a la vista de que la consulta concreta formulada no encajaba con contenido o documento alguno del que disponga y pueda hacer partícipe a la ciudadanía, ha reinterpretado la petición y ha proporcionado al solicitante la información disponible sobre criterios a los que se somete la Diputación Foral de Bizkaia para la determinación de las costas en los procedimientos de la jurisdicción contencioso-administrativa.
Hori guztia dela eta, Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordeak ebazpen hau ematea adostu du:	Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda dictar la siguiente
<b>EBAZPENA</b>	<b>RESOLUCIÓN</b>
<b>Lehena.-</b> Ezatea jaunak Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen aurrean aurkezturiko erreklamazioa.	<b>Primero.-</b> Desestimar la reclamación formulada por ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia.
<b>Bigarrena.</b> - Ebazpen hau jakinaraztea erreklamatzailari eta Araubide Juridiko eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzari. Halaber, beraren berri ematea Ahaldun Nagusiari Laguntzeko Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiboaren Kabineteko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzari.	<b>Segundo.</b> - Notificar esta resolución al reclamante y a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo al Diputado General.
<b>Hirugarrena.-</b> Ebazpen hau behin betikoa da; administrazio-bidea amaitzen du, eta, beronen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salan, BI (2) HILABETEKO EPEAN, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.	<b>Tercero.</b> - La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS (2) MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

<p>Hori guztia, bat etorrita Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudia onartzen duen uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. eta 46. artikuluetan xedatutakoarekin.</p>	<p>Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.</p>
---	---